# 11 ANTZERKI jaialdia amateur 2017

Alegria-Dulantzi

teatroamateur.com



"El sueño de una noche de verano"

Antzezlan onena 1. saria X. Jaialdia 2016

Sello de Calidad Escenamateur

Alegria-Dulantziko Udala
Ayuntamiento Alegria-Dulantzi

11 ANTZERKI jaialdia amateur 2017

Alegria-Dulantzi

teatroamateur.com

## JAIALDIAREN OINARRIAK

1.- Jaialdia Alegria-Dulantziko Kultur Etxeko Txema Blasco Auditoriumean izango da, bertako langileak eta ekipamendu teknikoa baliatuta.

2.- Edozein jatorritako antzerki-talde ez profesionalek parte hartu ahal izango dute, edozein eduki, estilo eta hizkuntzatako antzezlanak aurkeztuta.

3.- Jaialdia garatuko da **azaroaren 3tik 25era**, honela:

**Jaialdia: 3tik 19rako asteburuetan**, ostiral, larunbat eta igandeetan; eta haurrentzako obra bat eskainiko da.

**Amaiera-ekitaldia eta sari-banaketa: azaroaren 25ean, larunbatean.**

Emanaldi guztiak, baita amaierako-ekitaldia ere, 19:30ean izango dira, haurrentzako obra izan ezik, hori 18:00etan eskainiko baita.

4.- Taldeek **2017ko ekainaren 9ra arte** eman ahal izango dute izena.

5.- Parte hartu nahi duten taldeek udal-webgunera jo behar dute izena emateko: **www.alegria-dulantzi.net**, jaialdiaren berariazkora joanda: **www.teatroamateur.com**. Inprimatu eta txosten batekin batera bidali beharko da; txostenak ondokoak jaso behar ditu ezinbestean:

- Taldearen izena
- Harremanetarako pertsona
- Antzezlanaren izenburua eta egilea
- Fitxa tekniko osoa: taldearen zuzendaria, kide tekniko eta artistikoak
- Sinopsia (gehienez 9 lerro)
- Antzezlanaren iraupena
- Hizkuntza
- Taldearen historia laburra
- Behar teknikoak eta muntaketari dagozkionak
- Obraren antzezpen osoaren kopia edozein euskarri informatikotan (DVDa, pendrivea, etab.), edo esteka Interneten obraren bideo osoa ikusteko (bermatu behar da esteka behar bezala dabilela; bestela, sarbide-arazoak egonez gero, eskaria automatikoki baztertuko da).
- IFKren kopia eta BEZ salbuespenaren deklarazioa edo, bestela, ordezkariaren Zinpeko Deklarazioa erakundea irabazi asmorik gabea dela esanez.
- 2/3 argazki edo irudi euskarri informatikoan, egitaraua edota hedapenerako beste euskarri batzuk eratzeko.

Dokumentazio guztia Alegria-Dulantziko Udalaren esku geratuko da, eta ez da itzuliko.

6.- Izena emateko orria, dokumentazioarekin batera, honela aurkeztu beharko da:

**Posta arrunt bidez**

ALEGRIA-DULANTZIKO ANTZERKI AMATEURRAREN JAIALDIA

Herriko Enparantza, 1

01240 ALEGRIA-DULANTZI (ARABA)

**Posta elektroniko bidez**

casacultura@alegria-dulantzi.eus

7.- Talde bakoitzak gehienez 2 antzezlan aurkeztu ahal izango ditu.

8.- Izena emateko epea amaituta, eskaturiko informazio eta dokumentazio guztia aurkeztu ez dutenak jaialdian parte hartzeko hautaketatik kanpo geldituko dira.

9.- Hautaketa Batzordeak, aurkezturiko proposamenen artean, parte hartuko duten 9 obrak aukeratuko ditu, haurrentzako obra bat eta erreserbako hiru barne. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

10.- Hautatutako obrek baimena izan behar dute (SGAErena edo egilearena, hala badagokio) esleituriko eguna baino lehen antzeztu ahal izateko.

11.- Hautaturiko obrak igorritako dokumentazioari jarraiki antzeztu beharko dira, testuan eta aktoreen zerrendan aldaketarik egin gabe; bestela, antolatzaileei nahikoa denboraz jakinarazi beharko zaie, Epaimahaiak deskalifikatzeko arrazoi izan baitaiteke.

12.- Behin hautaketa burututa, posta elektronikoz jakinaraziko zaie hautatuak izan diren eta ez diren talde guztiei. Hautaketa eta jakinarazpena irailean bertan egingo dira.

13.- Talde hautatuek txosten bat jasoko dute jaialdiaren antolaketari eta funtzionamenduari, Txema Blasco Auditoriumaren inguruko datu teknikoei eta bertarako sarrerari buruzko informazio guztiarekin, baita udalerriaren inguruko informazioarekin ere.

14.- Jaialdian parte hartuko duten 9 taldeek **joan-etorrietarako eta antzezpenerako 900€-ko diru-laguntza eta diploma** jasoko dituzte. Antolatzaileek erabakiko dute antzezpenen ordena.

Antzezlanei dagozkien SGAEren kudeaketa eta ordainketa Alegria-Dulantziko Udalaren kontura izango dira.

15.- Honako sari hauek ezarri dira:

Antzezlan onena

1. saria.- Golardoa
2. saria.- Golardoa

Emakumezko lehen aktore onena: Golardoa

Emakumezko bigarren aktore onena: Golardoa

Gizonezko lehen aktore onena: Golardoa

Gizonezko bigarren aktore onena: Golardoa

Ikusleen saria: Golardoa

Epaimahaiaren sari berezia: Golardoa aipatutako sarien artean ez dagoen alderdi berezi batzuei eta epaimahaiak hala erabakita (eszenografia, jantziak, etab.).

Golardoak dira tokiko artista batek jaialdirako bereziki eginiko obra originalak.

16.- Partaidetza-diplomak eta sariak azaroaren 25eko (larunbata) **Amaiera Ekitaldian** banatuko dira, eta **udalak harrera** egingo die parte-hartzaileei. Parte hartzen duten talde guztiek bertaratu beharko dute gutxienez ordezkari batekin. Ekitaldira bertaratu ezean, dirulaguntza galduko da.

17.- Diru-laguntza eta sariak jaialdiaren amaiera-ekitaldia amaitu eta gehienez 30 eguneko epean emango dira.

18.- Kultur Zinegotzia edo hark eskuordeturiko pertsona bat izango da epaimahaiburu, eta epaimahaia antzerkiarekin eta kulturarekin loturiko zenbait pertsonek osatuko dute.

19.- Epaimahaiaren erabakia eta oinarri hauetan jaso gabekoen interpretazioa apelaezinak izango dira, eta aipaturiko edozein sari eman gabe geratu ahal izango da.

20.- Jaialdian izena emateak oinarri hauek onartzea dakar, baita oinarriotan jaso gabeko beste edozein alderdiri buruz antolatzaileek hartzen duten erabakia ere.

21.- Jaialdiari eta parte hartzeko oinarriei buruzko edozein argibide honako telefonozenbaki hauetan eska daiteke:

Kultura Zerbitzua.- 945 420 830, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Kultur Etxea.- 945 420 704, astelehenetik ostiralera, 15:00retatik 21:00etara.

Horrez gain, www.teatroamateur.com webgunean jaialdiaren eta auditoriumaren inguruko informazio guztia ageriko da.

11 2017

# festival TEATRO amateur

Alegría-Dulantzi

teatroamateur.com



"El sueño de una noche de verano"

Primer premio mejor montaje X Festival 2016

Sello de Calidad Escenamateur

Alegria-Dulantziko Udala
Ayuntamiento Alegria-Dulantzi

11 2017

festival TEATRO amateur

Alegría-Dulantzi

teatroamateur.com

## BASES DE PARTICIPACIÓN

1.- El festival se llevará a cabo en el Auditorio Txema Blasco de la Casa de Cultura de Alegría-Dulantzi poniendo a disposición su personal y equipamiento técnico.

2.- Podrán participar grupos de teatro no profesional de cualquier procedencia, con montajes de cualquier contenido, estilo e idioma.

3.- El festival se desarrollará del **3 al 25 de Noviembre** de la siguiente forma:

**Festival: Del 3 al 19 en fines de semana**-viernes, sábado y domingo; e incluirá una obra infantil.

**Gala de clausura y entrega de premios: Sábado, 25**

Todas las representaciones junto con la Gala serán a las 19.30h a excepción de la representación infantil que será a las 18.00h.

4.- Las agrupaciones podrán inscribirse hasta el **9 de junio de 2017**

5.- Los grupos interesados en participar deberán **rellenar la hoja de inscripción** que se encuentra en la WEB municipal: **www.alegria-dulantzi.net** y específica del festival: **www.teatroamateur.com**. Imprimirlo y enviarlo acompañado de un dossier que deberá contener obligatoriamente la siguiente información-documentación:

- Nombre del Grupo
- Persona de Contacto
- Título y autor de la obra
- Ficha técnica completa que incluirá: Director y elenco técnico y artístico del grupo
- Sinopsis (Máximo 9 líneas)
- Duración de la obra
- Idioma
- Breve historial del grupo
- Necesidades técnicas y de montaje
- Copia de la representación íntegra de la obra en cualquier soporte informático (DVD-Pen Drive, etc.) o enlace al vídeo completo de la obra en Internet (Deben garantizarse que el enlace funciona correctamente, porque en caso de problemas de acceso, se descartará la solicitud automáticamente)
- Copia del CIF y Declaración de exención de IVA o en su defecto Declaración Jurada del representante de que la entidad no tiene ánimo de lucro.
- 2/3 Fotografías o imágenes en soporte informático para la elaboración del programa y/o otros elementos de difusión

Toda la documentación quedará en propiedad del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi no procediéndose a su devolución.

6.- Las inscripciones junto con la documentación se deberá presentar:

**Por correo ordinario**

FESTIVAL DE TEATRO AMATEUR
AYUNTAMIENTO DE ALEGRIA-DULANTZI
Herriko Enparantza, 1
01240 ALEGRIA-DULANTZI (ALAVA)

**Por correo electrónico**

casacultura@alegria-dulantzi.net

7.- Cada grupo podrá presentar un máximo de 2 montajes diferentes.

8.- Los grupos que al finalizar el plazo de inscripción, no hubieran aportado toda la información y documentación solicitada, serán excluidos de la selección de participación en el festival.

9.- De las propuestas presentadas, un Comité de selección determinará los 9 montajes participantes, que incluirá una obra infantil, además de tres de reserva. La decisión del Comité será inapelable.

10.- Las obras seleccionadas deberán estar obligatoriamente en posesión de la autorización correspondiente (SGAE o del autor/es cuando corresponda) para representarse antes del día adjudicado.

11.- Las obras seleccionadas deberán ser representadas sin cambios de texto ni actores o actrices con relación a la documentación enviada; en caso contrario deberán advertirlo a la Organización con la antelación suficiente ya que esta circunstancia podría ser motivo de descalificación por parte del Jurado.

12.- Una vez realizada la selección se comunicará mediante correo electrónico a todos los grupos seleccionados y no seleccionados el resultado de la misma. La selección y comunicación se realizará en un plazo no superior al mes de septiembre.

13.- Los grupos seleccionados recibirán un dossier con toda la información sobre la organización y funcionamiento del festival, datos técnicos del Auditorio Txema Blasco y acceso al mismo, así como información general del municipio.

14.- Las 9 agrupaciones participantes en el festival recibirán **una subvención para desplazamientos y representación de 900€ y diploma de participación**. El orden de actuación quedará a criterio de la organización.

La gestión y abono de la SGAE correspondiente a las representaciones correrá a cargo del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi.

15.- Se establecen los siguientes premios

Mejor Montaje
1er. Premio.- Galardón
2º Premio.- Galardón
Mejor Actriz principal: Galardón
Mejor Actriz de reparto: Galardón
Mejor Actor principal: Galardón
Mejor Actor de Reparto: Galardón
Premio del Público: Galardón
Premio Especial del Jurado: Galardón a cualquier aspecto destacado que no se encuentre recogido en los premios descritos y a juicio del jurado (escenografía, vestuario, etc.)

Los galardones son obras originales realizadas específicamente para el festival por un artista local.

16.- La Entrega de diplomas de participación y premios se realizará en la **Jornada de clausura con recibimiento municipal** a todos los grupos participantes, que se celebrará el sábado, 25 de Noviembre. Los grupos participantes deberán asistir obligatoriamente con al menos un representante, la no asistencia a esta jornada implicará la perdida de la subvención.

17.- El abono de la subvención y premios se realizará en un plazo máximo de 30 días tras finalizar el festival con la gala de clausura.

18.- El jurado del festival presidido por El Concejal de Cultura o persona en quien delegue, estará formado por distintas personas relacionadas con el mundo del teatro y la cultura.

19.- El fallo y la interpretación que se haga de lo no recogido en estas bases serán inapelables pudiendo dejar desierto cualquiera de los premios descritos.

20.- La inscripción en el Festival supone la aceptación de las presentes bases así como la resolución por la organización de cualquier supuesto no recogido en estas.

21.- Cualquier información sobre el festival y sus bases de participación se puede realizar en el:

Servicio de Cultura.-TLF 945 420 830 de lunes a viernes de 9.00 a 14.00h.

Casa de Cultura.-TLF 945 420 704 de lunes a viernes de 15.00 a 21.00h.

Además en www.teatroamateur.com se dispondrá de toda la información sobre el festival y Auditorio